

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Otsailak 8, 95. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**MIRIAM
URKIA,**
euskara
informatikan




Bravíssimo!!!


Play back jaialdiak arrakasta ziurtatuta

ARRASATE KIROLAK

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12 ARRASATE



DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Mirari-haurrak

Nork ez daki, Wolfgang Amadeus Mozart hil zenetik bigarren mendeurrena ospatzen ari dela aurten? Beste goi aipamenen artean, urteko gizona izendatu du Mozart Europako Kontseiluak. Mundu guztian, Mozartek adierazten duenaren gaineko ekintzak antolatu dira, hainbat eta hainbat tokitan kontzertu eta musika emanaldi bereziak izango direlarik, salzburgoarraren omenez; Mozartek bere bizitza laburrean ezagututako hiriak kontaezinak ditugu.

Musikak eskaini duen gizonik garrantzitsuenetako honen inguruan, bada alderdi bat ni, behintzat, guztiz harritzen nauena. Bidaletarako Mozarten zaletasunari nagokio. Gazte gazterik hil zela -35 urte- gogoratzen badugu, harrigarri gerta dakiokio edozeini Mozarten arrastoa hainbeste lekutan aurkitzea. Haren bizitza pixka bat aztertuz gero, zenbait zehazkizunek mugikortasun horren zioa azaltzen digute.

Mozart mirari-haur izan zen, gutxitan jaiotzen diren horietakoa. Bere aitak, Salzбургoko artzapezpikuaren kapela-maisu zenak, bere semearen nolakotasun ikusgarriak garaiko mundu kulto osoari erakutsi nahi izan zizkion. Ene ustez, hortxe datza Mozarten bizimodu ibiltariaren sustarra. Eta, zalantzarik gabe, Wolfgangek bere aitaren urguilutasunari zor dio bere

arrakastaren ehuneko garai bat. Mendelssohn eta Tchaikowskik, esaterako, euren zor dieten bezala.

Mozarten aitak bere semea Europako errege gorte guztietara eramatea erabaki zuen, ekintza horrek ekar diezaiokien dirutzaz amets egiten zuelarik. 1762ko urtarrilean, Wolfgang Amadeusek sei urte zituela, Salzбургotik atera zen sendi osoa, berlina zahar batean, gortez gorte haur haren musika-bikaintasunak erakusteko. Dirudienez, aitak hauraren jenialtasuna nabarmenagotzearren, pianoaren teklak oihal beltz batez estaltzen zituen. Paris, Londres, Bolonia, Erroma, Viena, Praga... aitaren esku interesatutik, aintza eta... urrearen bila.

Hemendik hara eta handik hona ibili behar izate harek osasuna hondatu zion Mozarti, baina nomada behartuak Europako musika korrante eta izpirituetatik edan ahal izan zuen. Aitak, beraz, mirari-haurrengan ezarritako beharkizunak semearen jenio-izana sakontzen eragin zuen, oharkabez.

“Ezin da norberaren patua aldatu” idazten zuen Mozartek, bere hil-kanta amaitu nahian ziharduen egunetan. Amaigabea gertatu zitzaion requiema, heriotzak lehenago jo bait zuen Amadeus ospetsuaren atean. Abiadura garaiko bizitza hari patuak bizkarra eman zion.

Josemari Velez de Mendizabal

Uribarri Zeramiketean gauzkazu zain

Uribarri etorbidea 22, etxabehea
79 81 80 / 77 09 59 ARRASATE

Axulei eta lurzoruen erakusketa eta salmenta; zure etxerako kalitatea eta aukera.



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

Zebrabiderik ez Arrasaten

Ez dago eskubiderik, baina egia da: Arrasatek ez dauka zebrabiderik. Orain dela gutxi arte lurrean sumatzen baziren ere, momentu honetan gehienak erabat ezabatuta daude eta oinezkoak arrisku bizian jarri behar izaten dira kale nagusiak pasatzeko.

Esan didatenez, zebrabideen margoketa kanpaina konkretu baten barruan sartzen da, baina aurtengo kanpaina hori noiz burutuko den inork ez daki.

Eta bitartean zer? Zeren zain daude Udaleko arduradun horiek? Akaso istripu negargarri baten zain?

Edo hasten dira berehala zebrabideak margotzen edo honelako istripu baten berri izango dugu.

B.B.

Gerrarik ez!

Eskoriatzako Irakasle Eskolako Ikasleok Golko Pertsikoko gatazka dela eta gure eritzia ezagutzera eman nahi genuke:

*Golko Pertsiarrean ematen den gatazkak ez duela inoren askatasuna defendatzen, defendatzen duen bakarria mendebaldekoen interes ekonomiko-militaristak besterik ez direla.

*Iraken postura salatzeaz gain, Arabiar herriek euren arazoak konpontzeko duten eskubidea aldarrikatu.

*Berehala su-eten eta negoziaketen bidea har dezatela ezinbestekotzat jo.

*Golkoko gerrara joatera behartuta daudenak desertatzea eta Euskal gazteok intsumisioaren bidea hartzea guztiz baliagarria dela aldarrikatu.

Eta Gerraren Aurkako Euskal Batzordeak deitutako mobilizazio eta ekintza ezberdinetan parte hartzeko deia luzatzen dugu.

Ikasleen Asanblada

Urtekaria

Arrasate Presseko Zuzendari agurgarria:

Urtekaria 90 nire eskuetan daukat eta nire sorpresa adierazi nahi dizut.

Ut ziezadazu presenta nadin, Rosario Remón naiz, "La Merced" ikastetxeko zuzendari akademikoa. Ez dakit euskaraz berbetan eta zure aldizkarian agertzen diren gauzarik garrantzitsuenak, norbaitek itzuli behar izaten dizkit. Badago, inork itzuli behar ez didan artikulurik eta hauxe izan da "Erreforma egunen garaia" artikulua kasua. Erreportaia honek nire jakin nahia esnatu zuen eta esaldiz esaldi itzultzen joan nintzen.

Horretan, letra beltzez zera azpimarratzen da: Lau eskola publiko, bi ikastola, bi eskola pribatu kontzertatu... eta abar.


Zuzendari Jauna; ulertzen duzu zein den nire sorpresa? Ez al zegoen tokirik bi eskola kontzertatuen datuak erreportaia sartzeko?

Eguneroko presa eta zure lan ugaria izan dela kausa, pentsatu nahi dut.

Hala ere, berriro azaldu nahi nizuke, erreportaia honetan, eskola pribatu kontzertatuen ausentziak, negatiboki harritu nauela eta honek zera galdetzeraren eraman nau. Mertzeharrietara datozen 540 ikasleak ez dira Arrasatekoak?

Agur bero bat.

Rosario Remón




Gustora zaude Gazteizen egin den Gobernu koalizioarekin?



Victoriana Alonso
(Etxekoandrea)

Beno, nik ezin dizut esan. Gai horri buruz ez daukat eritzirik. Politikoak dira eritzia izan behar dutenak.



Jose Miguel Fernandez
(Langilea)

Beno, gustora, gustora... ez dakit, presaka nabil eta joan beharra daukat.



Toño Orellana
(Lorazaina)

Gobernu batekin ere ez nagoni gustora. Ez nau batere komentitzen, ez zait gustatzen aspaldian mobida nola dagoen. Gobernuan dagoena dagoela, gauzak berdin dau-de beti, dena berdin da.




Txaro Ramos
(Langilea)

Nik ez dut horretaz ulertzen, eta ez zait, gainera, gehiegi inporta.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

KOPIOTXOA

Fotokopiak
Planu-Erreprodukzioak
Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

Memesa

79 42 22

HORTZ-KLINIKA
GIPUZKOA

ENDODONTZIA
EZARPENAK
HORTZ ESTETIKA
PROTESI FINKOA
ETA ALDAGARRIA
KIRURGIA
ORTODONTZIA
ODONTOLOGIA OROKORRA

Marisa Porta Peña Dk.a
Gabriela Porta Peña Dk.a
Pablo José Mármol Dk.a
ODONTOLOGOAK

BERGARA

Simon Arrieta Plz. 3,
Tfnoa: 76 38 54

ZUMARRAGA

Soraluze 1,
Tfnoa: 72 46 47

ARRASATE

Iurriotz 7 bis, behe,
Tfnoa: 79 73 88

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------



8

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Temblores", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Always", 10.30etan.
- Amaia. "El rey de la comedia", 22.30etan.
- Argazki rallya, "Haratuzteak" gaiaz.
- Goardiako farmazia: -egunez: Español, Iturriotz. Gaeuz: Puy.

9

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Darkman", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Malas influencias", 5 eta 7.30etan.
- Umeentzako sokamuturra Monterron ondoan, arratsaldeko 6etan.
- "II. Play-Back Jaialdia", Amaian, gaueko 22.30etan.
- 23.00etatik aurrera dantzaldia, "Txintzarri" taldearekin.

Kirol Agenda

FUTBOLA

• • •

- Mondra eta Amorebieta taldeen arteko partidua, Atxabalpen 4etan.

FUTBITOA

• • •

- Zaldibarko frontoian, larunbatean eta igande artean 12 partidua.

12

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Darkman", 7 eta 9.30etan.
- Arratsaldeko 4etan, mozorroen desfilea.
- 10etatik aurrera dantzaldia "Inguma" taldearekin.
- 11.30etan sardinaren hileta.
- Goardiako farmazia: -egunez: A. Ruiz, Maala. -gaeuz: Mozos, Bergara.

13

ASTEAZKENA

• • •

- Ehiza eta arrantza elkartearen Batzar Orokorra.
- Goardiako farmazia: -egunez: Morales, San Andres. -gaeuz: Camacho, Bergara.

14

OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez: Azkoaga, Ferrerías. -gaeuz: Puy, Bergara.

SASKIBALOA

• • •

- Musakolako kiroldegian Centraljet Euskal Air-La Salle Deusto taldeen arteko partidua, arratsaldeko 6etan.

TXIRRINDUA

• • •

- Aretxabaletan, igande goizean "Kilometro lanzado" delako froga, gazte mailan.

Liburuak

• Esaizu

Sei ikastunitatetan banaturik eman du argitara, Ereinen eskutik, OHoko 7. mailarako testuliburu hau Eskoriatzako Irakasle Eskolako argitarapen taldeak. Solaskide trebe izaten, komikigintza, irakurle eta kontatzaile izateko bidea eta informazioa jaso eta emateko modua irakasten da, OHoko mailako ikasleei, lauki, komiki eta bestelako marrazkiren bitartez.



Liburuarekin batera, hizkuntz tailerrak izeneko karpeta batek sei liburuxka biltzen ditu, ariketaz beterik.

Liburu berriak

Hona hemen urtarrilean Monterongo liburutegira etorri diren liburu guztien artean egindako aukera:

Roussel L, Raymond: Impresiones de Africa (nobela)

Barnes, Julian: Una historia del mundo en diez capítulos y medio (nobela)

Pombo, Alvaro: El metro de platino iridiano (nobela)

Havel, Václav: Cartas a Olga Savinio, alberto: Nuestra alma. El señor Munster (narratio laburrak)

Chomsky /Herman: Alemania, una unificación insensata (saioa)

Handre, Peter: Ensayo sobre el cansancio



ARGAZKI RALLYA

ASA Taldeak antolatuta

Haratuzteak gaitzat hartuta, argazkilarik ugaririk parte hartzea espero da asteburu honetan Arrasaten izango den Argazki Rallyan. Gaia librea izango da, beti aurtengo ihauterekin lotutakoa izan behar du duelarik. Parte hartzaileen poltsikorako ez da gasturik izango, karrete banaketa eta errebelatzea antolatzaileen esku geratuko da eta. Ostiral arratsaldean egin behar da karreteak jasotzea, 6etatik Betara ikatz, Epelde eta Laso-Arregi argazkide dendetan. Hilaren 13an eman behar dira karreteak hartutako dendan, errebelatze lana hainbat lasterren egiteko. Egindako argazki guztietan aukeraketa egiteko, otsailaren 18an joan behar dute parte hartzaileek Monterongo Erakusketa aretora, arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara, bakoitzak 8 argazki aukeratzeko. Ondoren, otsailaren 20tik 28ra erakusketa egingo da Monteronen. Lehiaketaren emaitzak otsailaren 20an bertan emango dira jakitera, arratsaldeko 7etan. Animatu eta hartu parte!

Fitzgerald, F. Scott: Gatsby Handia (nobela)

Machado de Assis, J.M. : Alienista (ipuin)

Beste batzuk

Bonafaux, Paul: Van Gogh, cegado por el sol

Bouillon, Jean-Paul: Diario del Art Nouveau (19870-1914)



Tranchefort, François-René: Guía de la musica sinfónica

Brazeau, Julie: Cómo redactar nuestro curriculum vitae

Ikastaroa

• Deba Garaiko DYAk antolaturik, sokorrismo ikastaroa egingo da Aretxabaletako Zairaia zineman otsailaren 18tik aurrera, hilebete t'erdiz. Ikastaroan parte hartzeko izenematea otsailaren 17a baino lehen egin behar da, honako toki edo telefonoetara joaz: Arrasaten

Zubia Oinetakodendan, Aretxabaletan Murruxiko mendizale elkartearen edo Zubiarenean, Eskoriatzan Akeita tabernan edo DYAk telefono hauetan: 46 46 22 edo 76 62 91.

Jaiak

• Gesalibarko jaiak.

Ostiralean hilak 8 hasiko dira jaiak Gesalibarren, kanpai errepikarekin. Ondoren afora Gentil Ola elkartearen, Zabale anaien erromeriarekin batera. Larunbatean haurren jolasak eta buruhandiak izango dira eta 2.30etan auzoko abesbatzak eta trikitilariak zaindariari abestuko diote. Herri afariaren ondoren Kaixorekin dantzaldia izango da. Igandeko meza nagusiaren ondorengo erromeriarekin amaituko dira aurtengo jaiak



Mendia

• Besaide Mendizale Elkar-teak urteko lehen irteera antolatu du otsailaren 17rako. Bidania-Ernio-Asteasu aldeak bisitatuko dituzte, eta urteko ibilaldiei hasiera ona emateko, bazkaria antolatu dute Astigarragako sagardotegi batean. Irteera otsailaren 17ko goizeko 7etan izango da, Garibaiko geltokitik. Prezioa: bazkideentzat 2.800. Bazkide ez direnentzat 3.100 eta gaztetxoentzat 2.400, bidaiari eta bazkaria barne. Izena ematea otsailaren 11, 12 eta 13an egin behar da Besaideko egoitzan, arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara.

“.....

Zirkulu politikoetan esaten denez, Udalean daramatzen urteak direla eta hasieran ezetzean bazegoen ere, badirudi HBk komentzitu egin duela Xabier Zubizarreta berriro ere zerrendaburu izateko. Iraolaren izena ere entzuten da.

Iturri berek, segurutzat jotzen dute EAko zerrendaren buru Pedro Ruiz de Azua izatea.

Badirudi, hala ere, Xabier Lasagaren izena baztertu egiten dela EAJko alkatetzarako. Lan Kide Aurrezkiko abokatuak, askorentzat alkategai serio denak, lan arazoak aitzaki jarritz uko egin dio EAJko zerrendaburu izateari... Ordezko hainbat izen entzuten dira, euren artean Goitiarena, Ardanzaren alkatetza garaian zinegotzi eta Haziendako batzorde buru izan zenarena.

Ez dirudi Jose Luis Lanak ere errepikatuko duenik, zortzi urte egin bait ditu Udalean, batzar Nagusietako beste lau tartean, 12 urte guztira. Hainbat iturrik behin eta berriro aipatu dute azken hilabeteetan alderdi sozialistara Mariano Arrieta sartuko ote den. Arrieta Lagun Aroko teknikaria da, historikoki alderdi ezkertiarraigoetatik datorrena. Datuak egiaztatzen, bere hautagaitzak, goragotik errekomentatuak, errezeluak eta aurkako jarrera aurkituko lituzke herriko alderdikideen artean. Iturriren batek aipatu du, bestalde, Alderdi sozialistak Esku alde Ospitaleko oraingo zuzendariari, Blanca Roncali gonbitea egin ote dion ere”.

(Lino Mondragon kazetariak El Correo Español egunkarian)

Zeintzuk dira Gesalibar auzoaren arazo larrienak?

Lehenik, esan behar dut Gesalibar duela pare bat urte baino hobeto dagoela. Dena dela, oraindik badira zenbait gauza konpondu behar direnak.

Arazorik larriena-rikoa tokirik eza izango litzateke, ez umeek eta ez helduek, denbora libre pasatzeko tokirik ez daukagulako. Gesalibarren dauden terreno gehienak fraide edo monjenak dira, beraz horien baimenik barik ezin dugu ezer asko egin. Guztiontzat, bai eurentzat eta baita guretzat, interesgarria izango litzateke biltzeko leku itxiren bat, kultur-etxe antzekoren bat.


Bestalde, estalitako frontoi bat izatea ere ondo egongo litzateke, orain ez bait dago ezer. Baina jakina, terrenoak fraide eta monjenak direnez, eurekin konpondu beharko ginateke.

Horretaz gain, garraioarena ere konpondu beharra dago, Gipuzkoa edo Araba aldera irteten diren autobusak oso gutxi dira, eta gainera ez ordu egokienetan.


Baserrietarako pistak konpondu beharrean daude, zaharrak eta luzeak direlako. Alderdi horretatik ez da laguntza handirik somatzen, eta argi dago partikular batek ezin duela horrelako obrarik ordaindu.

Azkenik, telebistarena aipatu nuke. Duela denbora gutxi arte, Estatuko bi kanalak ikusten ziren bakarrik, orain Euskal Telebistarenak ere ikusten ditugu, eta aurretik ez ziren ATB ikusi nahi genuke, guri herriko kontuez enteratzea ere gustatuko litzaguke eta.

Ignazio Unamuno,
Gesalibarko alkatea.




FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

Antzuola

• Ariher enpresako 58 langileak lantegiaren egoera aztertzen ari dira, iazko irailen enpresak lurra jo zuen eta lantegia ixteko asmoa erakutsi. Asmo horren aurrean, langileok, bezerorik ez galtzeko, lanpostuen erregulazioa egin zuten eta gaur egun 31 lagunek bertan lan egiten dute. Langileek diotenez, enpresak dirua ematen omen du, baina ez Instituzioekin daukan zorra ordaintzeko beste. Enpresaren etorkizuna denbora gutxi barru jakingo da.

• Idolaz euskara taldeak, Lurraldeak egindako bideo emanaldia erdaraz egitea salatu du eta Lurraldeko ordezkaria azalpenean euskaraz ez aritzea, kontuan harturik Antzuolan %70ak euskaraz dakiela.



Bergara

• Bergarako Eragozle Talde Antimilitaristak, Zabalotegiko dorrean kontzientzi eragozpenaz eta intsumisioaz informatzeko bulegoa ireki du. BOTAK, bulego honetan, soldaduskara ez joateko erabakia hartzen duten guztiei egin beharreko pausoen berri emango die.

• Udaleko Euskara Batzordeak VI. literatur lehiaketa antolatu du. Lanak emateko epea apirilaren 8an bukatuko da eta, adinarean arabera, sei talde eratu dira. Lanak argitaraga-beak izan behar dira, sariak maiatzaren 19an banatuko direlarik.

• Higiene kanpainarako ideia lehiaketa antolatu du Osasun eta Gizarte Ongizate Batzordeak, lanak aurkezteko epea martxoaren 15era arte zabalik dagoelarik. Lanak, euskaraz eta erderaz aurkez daitezke eta sariak 100.000, 60.000 eta 40.000 pezetakoak dira.


• San Blas jaien egitauaren barruan igandean Mountain-Bike frogak burutuko dira 12etatik aurrera, normahik parte hartu dezakeelarik.

Elgeta

• Martxoaren 1ean bertso jaialdia burutuko da, Euskara Batzordeak antolaturik. Jose Luis Gorrotxategi, Jokin Sorozabal, Joxe Agirre eta Xabier Eguzkitzek hartuko dute parte, sarrera dohain izango den saioan.

Aretxabaleta

• Udalak egindako azken Gobernu Batzordeak Kurtzebarriko Eskolen berritze lanen proiektua onartu zuen, 20.753.556 pezetako aurrekontuaz. Gobernu Batzorde berean 1.078.360 pezetako gastua onartu zen, Musika Eskolako hainbat tresna erosteko.



BITXIEKIN MAITEMINDUAK


Bitxitegia

Erlojutegia

NAROKI

Erdiko kale, 23 Tel. 79 20 47 ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

Elbarrituentzat

Urtero bezala, Elbarritu Fisikoei zuzendutako Lanbide Heziketarako Bekak atara ditu Mapfre Fundazioak, Madrileko Majadahondako Erreabilitazio zentruan. Beka eskuratzeko eska-riak aurkeztea, otsailaren 28an amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Gizarte Ongizate Sailera jo, edo dei egin 79 09 00 telefonora.

Aita Menni

Santa Agedako Aita Menni Ospitale Psikiatrikoak Arrasaten kokatutako pisu baten inaugurazioa egin du otsailaren 4ean. Etxe horretan, Aita Menni Emakumeen psikiatrikoan internatutako lau emakume jarriko dira bizi izaten, urtebetean desinstituzionaltze programa batean ibili ondoren. Inaugurazio ekitaldira Ospitaleko gerente eta zuzendari medikuaz gain, bertako lantaldea eta Deba Garaiko Buru-osasun zen-truko taldea izan ziren, eta baita duela hiru urte beste etxe batean bizi izaten jarri ziren hiru emakume ere. Aditzera eman dutenez, martxan dagoen espe-rientzia erabat txalogarria izan da.

Desinstituzionaltze programara, bukatzeko, urtearen amaierarako 22 gaixo sartuko dira, eta eguneko ospita-lea izeneko zerbitzu jarriberriarekin, beteta geratzen dira 91rako ospitaleak ezarritako helburuak.

Bide hezkuntza

OHoko 5. eta 6. mailetan ari diren neska-mutiko arrasatear guztiek bide hezkuntzari buruzko ikastaro bat egin-gu dute, otsailaren 25a bitartean. Guztira 717 ikasle izango dira Musakolako kiroldegian emango zaizkien ikastaro hauetan, guztira talde bakoitzari hiru klaseordu emango zaizkiolarik. Klase teorikorako zirkuitua eratu da Kirolde-gian bertan.

Txandaka

PETROLIOAREN GERRA

Nire ustez Golkoko gatazkak, beste aspekturen artean, petrolioarekiko in-perialismoak historikoki erabilitako estrategiaren porrota adierazten du. Ja-kina, 1960ra arte zazpi konpainia multinaziona-lek, munduko petrolioaren produkzioa, birfinketa eta banaketa kontrolatzen dute, baina 1959an herri ekoizleek OPEP izenarekin Kartel bat lortu zutenean, herri kapitalista gara-tei lehen laino beltza agertu zitzaien zerumugan.



Antxon Mendizabal (*)

Etorkizunari begira, inperialistek kezkatzeko arazoak zituzten, petro-liotegi handienak arabiar eta islamiar diren herrietan kokatuak bait zeuden, hemen egoera politikoa guztiz eze-gonkorra bihurtzen zelarik.

1973an, Israel eta arabiarren ar-tean laugarren gerrak eztanda egin zuenean, herri ekoizleek, arma poli-tiko bezala, petrolioaren igoera erabili zuten eta upelaren prezioak sekulako gorakada egin zuen (1,8 dolarretik 10 dolarretaraino). Prezioaren ezarkun-tzan, herri ekoizleen ekimen eskuratzeko horri, inperialismoaren strategiaren bigarren porrota kontsidera dezakegu.

Arazo larria da, munduko petrolio-aren erreserba handiena, Iran, Kuwait, Emirato Arabiarrek eta Saudi Arabian kokatzen da (Lybia matxinatua dago) eta inperialismoak herri hauen klase dominatzaileekin aliantza sendo bat egiteko beharra du, beraien ahalmen

finantzieroa (kapitalen internazionalizatze pro-zesua dela medio) men-debaleko ekonomian in-tegratuz.

Honela, 1979an, Ira-neko iraultzaren ondoren, demokrazia burgesa mo-dermistaren orde, xiitek, Jomeini buru, boterea es-kuratzerakoan, inperia-lismoaren hirugarren po-rrota dugu. Jomeynik mendebaldea satanekin identifikatzen du, nazioar-teko merkatuan sekulako gorakada so-rreraziz (10 dolarretik 27 dolarretarai-no).

Inperialismoak, iraniar iraultzaren hedakuntza geldiarazteko Sadam-Huseinen proiektu espansionistari la-gunduko zion, Golkoko beste herri arabiarren ahalmen finantzieroak mendebaldeko ekonomian birziklatuz. 1989an Irakek, ekonomia hondatua, ikaragarritzko zorrak (50 bilioi Kuwaiti) eta 300.000 hildako dauzka.

Sadam-Huseinek egindako eska-riek (upelaren prezioa igotzea eta maileguak ordaintzeko tratamendu faboragarria) inperialismoak ez zien ez kontsideraziorik ez sentikortasunik erakutsi. Irakekiko hutsegite honekin, inperialismoaren eremua gutxiagotu egingo da. Baraz, Sadam-Huseinek Kuwait estatua anexionatzerakoan, inperialismoaren egoera pairaezina bihurtu da eta interbentzio militarra ezinbestekoa.

EHU irakaslea ()*

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana 12, ARETXABAETA

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate


Zabortegia eztabaidagai

EKI taldeak zaborrari buruzko kanpaina burutuko

EKI ekologista taldeak zaborren inguruko kanpaina bati ekiteko asmoa adierazi zuen joan den ostegunean Monterronen emaniko prentsaurrekoan. Gizarte kontsumitzailean hondakinak kopuruaren aldetik duen garrantziarengatik heldu nahi izan diote orain gai garrantzitsu horren inguruko kontzientziatze kanpainari. Zenbat eta zabor gehiago izan, orduan eta kutsadura handiago dela esanez, Atangurengo zabortegiaren arazoak bezala orain Arrasateko Epelekoak ere sistemaren irrazionaltasuna plazaratu duela adierazi zuten Jose Ruiz eta Peter ordezkariak.

Zaborrak erreperatzea edo suntsitzea irtenbide bakartzat hartzen direlarik, bigarrena fikziotzat jotzen dute ekologistek, eta erakundeek zaborraren tratamenduan arazoa konpondu ez baina beste arazo batzuk sortu besterik ez dutela egiten, euren ustez. Zaborraren arazoari tratamendu orokorragoa ematea proposatu zuten Ekikoek. Zaborraren gure eskualdean erabiltzen den inzinerazio sistemari azaleko irtenbidea erizten diote, irtenbidea orain artean bota eta erretzea izan dela esanez. Kontuan hartu beharrezkotzat jotzen zizuten, bestalde, erretzerakoan botatzen diren sustantzia ezberdinek osasunerako eta ingurugiroan dituzten ondorioak.

Zabortegi edo isurtegiari egindako kritiken artean, ingurugiroan izango lukeen eragina azpimarra daiteke. Aurkako jarrera azaldu zuten, erabat irtenbide partziala dela, hara botatzen dena aztertzeke laborategi edo aditurik ez delako izango, eta kontrolari buruz ere zalantzak dituztelako. Hondakin kutsakorrei irtenbiderik ez ematea da



Epelekoa irtenbide partzialtzat daukate EKlkoek egiten zaion kritikarik handiena.

Guzti honekin, maila ezbedinetan hainbat neurri hartzea proposatzen dute EKlkoek: alde batetik, hondakinen murrizketarako arazoaren muinera jo eta aerosolak, merkuriozko pilak eta antzeko gaiak debekatzea, prozesu industrialetan eragina izatea, papera garbitzean kloroa ordezkatzeko eta ahal den neurrian zirkuitu neutralzaileak sortzea. Bestalde, herritarren kontzientziarioari garrantzia ematea, eta enbalajearen kulturaren aurka joatea -horixe bait da etxeko zaborren %40a-. Era berean, administrazioari ontziei buruzko lege berria eskatu beharra azpimarratu zuten, berrerabilgarriak izan daitezkeen. Azkenik, herritarren kolaboraziaz hiru "b"ak -buelatu, berreskuratu, birziklatu- bultzatzea proposatzen dute EKlkoek.

Usteak uste

Udal hauteskundeak gainean dira. Hiru hilabete barru Arrasateko hurrengo Alkatea nor izango den jakingo dugu. Oraingo bera izango den ala berria, eta nola osatuko den Udalbatza berria... datu garrantzitsuak datorren legealdirako.

Gipuzkoa mailan Arrasateko Udala inportantea da arrazoi askorengatik: kooperatibak, indar desberdinen arteko erlazioa, euskara, Alkatea HBkoa duelako... eta zenbait komunikabide hasia da dagoeneko balizko hautagaiei buruz idazten.

Eusko Jaurlaritza osatzeko eratu den koalizioak Mondragoen izan lezakeen eraginetik kanpo, bada honen beste faktorerik aldaketak ekar litezakeena: PP edo Partido Popularraren jarrera. Mondragoek dituen 20.127 hautesleetatik 523k PPri eman zioten botua azken Hauteskunde Autonomikoetan, hau da, %2,6a, edo beste modu batean esanda, zinegotzi bat, datu horiek Udal Hauteskundeetara estrapolatuz gero.

Estrapolazioak labankorrek izan daitezke, hala ere, zeren botua emango dion jendea baldin badu ere, PPK orain arte inoiz ez du kandidaturarik aurkeztu. Horrek mesede egin dio PSOeri, duda barik, zeren horri esker, monopolizatu egin bait du botu espainoltzalea.

Maiatzaren amaieran Orejatarren kideek ganorazko kandidatura aurkeztuiko balute Arrasaten, sozialistek zinegotzi bat gal lezakete, gutxienez.

Joxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldipe 2,
Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Azterketa eginda, %30 merkeago izango da konponketa tailer batzuetan.

Ecomovil laster hasteko

Autoaren doaneko azterketa otsailaren 18tik aurrera

Otsailaren 18tik apirilaren 19ra Ecomovil programa burutuko da berriro ere, CADEMek antolatutako eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Azken bi urtetan doaneko diagnostia egite horrek izan zuen arrakasta ikusirik, hilebetean ostera ere lan horri ekitea pentsatu du, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-bulegoaren bitartez. Aurtengorako egiten den aurrikuspenaren arabera, 492 ibilgailuri egingo zaio azterketa, eta lekuari dagokionez, Udal Biltegia izango da erabiliko dena, lehen E.J.E. zena, Errekalde kaletik sartuta.

Autoa aztertzekeo eguna eta ordua jartzen dituen txartela hartu beharko da azterketa lekuan, otsailaren 18tik aurrera. Azterketa bera egiteko ordutegia, berriz, astelehenetik ostiralera izango da, 10etatik ordubatera goizez, eta 3,30etatik 6,30etara arratsaldean.

Diagnostia egin ondorengo konponketak egiteko orduan %30erainoko deskontua lortu ahal izango da CADEMekin hitzartuta dauden tailerretan, eta azterketa egitean emango zaie Arrasate inguruan zein tailerretara joan ahal izango diren.

☐ Zuhaitz eguna

Zuhaitz egunerako 131.500 ptako dirulaguntza emateko erabakia hartu zen Udaleko azken Gobernu Batzordean. Diru kopuru hori otartekoak, edariak, dutzaineroak eta publizitatea ordaintzeko erabiliko da. Zuhaitz egunean, Arrasateko eskola eta ikastola guztietako OHoko 6. mailako ikasleak izango dira Garagartzako rugby zelaiaren inguruetan haritz eta pagoak landatzen.

☐ EKBren kanpaina

Euskal Kulturaren Batzarreak bulzatuta martxoan egingo den euskarazko irakaskuntzaren aldeko kanpaina Arrasateko Udalak ere hartuko du parte, beste 23 Udalekin batera. Kanpainaren barruan triptikoak banatu, kartelak ipini eta gutun pertsonalak bidaliko dira eskolan hasteko adinean dauden neska-mutikoen familietara, D ereduaren aldeko apostua egin dezaten. Arrasateko Udalak 150.000 pta emango ditu publizitate kanpaina eta gainerako gastuei aurre egin ahal izateko.

JAIOTZAK

Prior Gomez *Ander*, urtarrilaren 29an.
Eraña Lpz de Bergara *Gorka*, 29an.
Ugarte Mendo *Deiane*, 30ean.
Fernandez Espinosa *Laura*, 31n.
Zubizarreta Etxabe *Julen*, otsailaren 4ean.


EZKONTZAK

Jose Luis Duran & Mari Carmen Davila, otsailaren 2an. Elizaz.

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

SASKI NASKI

Lehiaketa

1991



SARI HANDIA

**Zenbaki
saritua:
06486**

Hona hemen Saski Naski Sari Handiaren zenbakia: 06486. Zozketa joan den astean egin zen eta bertan Pako Gonzalez, Josu Uriarte eta Jon Aranzabal egon ziren, Okendo Kirolak, Tamayo eta Jose Aranzabalen ordezkariak. Numero hori duenak alpatu dendetara eta Arrasate Pressera jo dezala. Gogoratu Saria benetan potoloa dela.

❑ Amaia antzokia

Amaia antzokiaren berregokitze lanetarako Andoni Mendizabal arkitektoak aurkeztu duen proiektuari oneritzia eman dio aste honetan Udalak. Egitasmo osoaren aurrekontua 132.300.830 ptakoa izango da, eta Diputazioak ere emango du lan horretarako dirulaguntza.

❑ DYA


DYA bidelaguntza elkarteak 1.991ko urtarrilean Antzuolako egoitzean eskaini dituen zerbitzuei buruz emandako informazioan honako datuak biltzen dira: 310 pertsonari hartu zitzaion tentsioa, Arrasate, Oñati eta Elgetako jubilatu etxeetan.

❑ Eusko Alkartasuna

Arrasateko Eusko Alkartasunak otsailaren 16an "Askatasunaren alde" izenburupean Donostian burutuko den manifestaldirako autobusak antolatatu ditu. Irteera Garibai plazatik egingo da arratsaldeko 3etan eta autobuserako izena emateko 79 64 53 telefonora dei egin edo Alkatetxera bertara joan daiteke, arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean.

❑ Martxoa kulturaz

Udalak onartu berri du datorren hierako kultur ekintzen programazioa. Kultura batzordeak antolatu asmo dituen ekitaldietarako 554.000 pta ematea onartu zen.



Jose Angel Barrutiabengoa, Elkartearen lehendakaria

Zientzia Elkartea aurkeztu

Herritarrei iragana erakustarazteko asmoz

Arrasate Zientzia Elkartea duela urte-bete eratu zen, baina joan den astera arte jende aurrean aurkezpenik egin barik zegoen. Joan den asteko aurkezpenean, orain arte egindakoaren berri eta Elkarteak etorkizunerako dituen asmoen berri eman zen.

Urtebeteko ihardueraren ondoren, Arrasateko eraketa geologikoaren azterketa, eta Arrasateko aurrehistoriari buruzko ikerketa eginak dituzte Arrasate Zientzia Elkarteko kideek. Egiteaz gain,

lan horiek ezagutaraztea nahi litzukete, eta horregatik hurrengo urratsa liburu batez argitara ematea litzateke.


Arrasate Zientzia Elkartearen helburua, Arrasateko lan historikoa egitea litzateke, zientzietako edozein arlotan Arrasateri buruzko lanak eginez.

Egiteaz gain, irakastea ere Elkartearen helburuefarikoa litzateke, eta horregatik liburuak argitaratzearekin batera heziketa maila landu nahi da, hitzaldi eta mahainguruak eginez.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA



Kontzezino 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Orain bi urte parrokian ibili ziren lanean

Uda-lantegiak prestatzen

Nazio ezberdinetako gazteentzat irekita

Datorren udan gazteentzako uda-lantegiak jarriko dira martxan Arrasaten ere, Udaleko Gazte Batzordearen ekimenez. Aurtengorako Gazte Batzordeak burutu asmo duen lan motak ingurugiroarenganako kezka eta ardura sorrarazi nahi du, eta programarako emandako 710.000 ptako aurrekontuaz, Udala auzoa eta Udalaitz mendia gaitzat hartuko dituen lan egitasmoak burutuko dira.

Oraingo dauden asmoak betetzera, lantalde ezberdinetan banatuko lirateke: batzuk Udala inguruetan dauden bideak aztertu eta lekuari buruzko ma-

pak eguneratu eta berriak egingo litzukete. Talde honen ekintzak uztailaren lehen hamabostaldian antolatuko dira, ondorengo lan guztiak azterketa horietan oinarrituko direnez. Bigarren lantaldearen lana aurretik besteek proposatutako hainbat zirkuituren maketak egin beharko dituzte, geroago ingurugiro heziketan erabiltzeko. Hirugarren taldeak Arrasateren ingurugiro ezaugarriak aztertu beharko ditu, eta aurreko biak bezala Udako Eskolan erabiltzeko izango dira baliagarri. Azkenik, Uda-lantegiak nazio ezberdinetako gazteak bilduko dituela espero da.

❑ Rafa Etxaberen epaiketa

Rafa Etxabe preso arrasatearraren epaiketa, aste honetako ostegunean Madrileko epaitegian izatekoa zena, atzeratu egin da abokatuen planteia dela medio. Fiskalak 26 urte eskatzen ditu arrasatearrantzat eta komando bereko partaide izateaz salatuz atxilotuta dauden Mikel Osa bergararra eta Jose Mari Lete atxabaltarrantzat.

❑ Pila bilketa

Eguzki talde ekologistak joan den abenduan hasitako pilen bilketa selektiboaren kanpainak aurrera darrai, eta bitartean egin berri da dendetan utzitako pila erabilien lehen bilketa. Herritarren partaidetza oso positibotzat jotzen dute, guztira 2.000 pila inguru batu dira eta. Mankomunitatearekin birziklatzeari ekiteko ahalegin zenbait egin da, eta jarrera ona eta aldekoa den arren, oraingo ezin izango zaio lan horri ekin eta posta zerbitzuaren bidez kanpora bidaltzen dira birziklatzera. Bien bitartean, beste 5 hilabetez pilak batzen segituko dute ekologistek, eta orain arteko denda guztietan bota ahal izango dira.

❑ Santa Agedako korua

Santa Agedako koruari 40.000 ptako diru kopurua eematea erabaki zen azken Gobernu Batzordean. Era berean, SUDC Batzordearen trikitilari eskolarako 243.000 pta emango ditu Udalak, 90-91 ikasturteko azken bi hiruilabetei dago kienez.

ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA

I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)

GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80



Felipe del Hoyo eta **Unai Lazkano** etorri ziren Tamayonera Saski-Naskiko saria jasotzera. **Yelena Diazek** ez zuen etortzerik izan. Adi, lagunok, Saski Naskiko sari nagusiaren zenbakia honako hau da: 6.486



Aramaiorekua Munar inguruetatik pasatzen den tokian, pasealekua egiten hasi dira. Ez da ibilbide luzea izango, baina tajututakoan polita bai. Errekondoan paseatzeko modua izango du aurrerantzean hala nahi duenak, Muxibar parean hasi eta Udala plazarainokoa. Orain argazkian ageri den moduan daude obrak, eta itxuran geratuko den antzak hartu ditu.



Daniel Penicand, **Bernard Isebe**, **Philippe Cherrier** eta **Raymond Schalk** Frantziar teknikariak etorri zaizkigu astean bisitara. Europarekin muga egiten duten hainbat herri buruzko azterlana egiten ari da taldea, eta Euskal Herriaren adierazgarri edo, Maule, Gasteiz eta Arrasate aukeratu dituzte. Kooperatiba batzuk eta Arrasate Press eta ATB bisitatu dituzte gure herrian.




Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)





txutxumutxuak

Izen
PROPIOAK

● **AMAIA MARTIARTU**, 20, arrasatearrak eskuratu du Santurtziko komiki lehiaketan lehen saria, 50.000 pta hain zuzen. Sariketa horretara aurkeztutako lana aurtengo AED komiki lehiaketan aurkeztutako bera izan zen, gure herrikoan sari barik geratu arren.

● **JESUS MARI MADINA-BEITIA**, 28, arrasatearra izango da urtebetez, Oñatiko Udaleko idazkaria. Jesus Mari Donostiako Zuzenbide Fakultatean egin zituen ikasketak eta Salamanca zuzenbide praktiketako diplomatura. Administrazio orokorreko teknikari bezala Arrasateko Udalean lan egina da. Urtarrilaren 31an egindako azterketan puntuarik gehien eta meritutan puntuaziorik handiena izan zuen.

● **JOSE ANJEL BARRUTIA-BENGOA**, 39, arrasatearra, egin berri den Arrasate Zientzia Elkartearen lehendakari izendatu dute. Jose Angel praktikantea da, ATS ikasketak egin zituen Valladolid-en eta gero espezializazioa Madrilan.

Euskararen erabilpenaren alde joan den martxoaren 28an urratutako bidean beste pauso bat eman dute Arrasateko Udalak eta Lagun Aro Aseguru etxeak aste honetan. Udalak aseguru konpainai horrekin urtero sinatzen duen aseguruaren inprimakiak euskaraz sinatu ahal izan dira lehen aldiz. **Xabier Zubizarreta** Alkateak, eta Lagun Aroren izenean **Gorka Knorrek** sinatu zuten. Sinatutakoan artean, establezimendu, erantzukizun zibila, istripu pertsonala eta talde aseguruaren agiriak zeuden, guztiak euskaraz. Eredua izan dadila.



Epelde

◀ **Jose Ignacio Garai** eta **Koro Markaide** joan den azaroaren 17an ezkondu ziren. Bidaia Mexiko aldera egin zuten. Zorionak bikote berriari!



**ARANBURU
COTEMAR**

Garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE



Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Billegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18



**ETXE-
-AUNDI**

**Ostiraletan
d a s t a t u
g u r e
m e n u
b e r e z i a k**

3.500 pta. inguru

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Egizu barre, arren

Jaun-Andreok, mutil eta neska zaharrok, aitajaun amandreok, neskatila eta mutikotxook, gazte eta ez hain gazteok, zuekin... Bigarren Play-Back jaialdia!

Kazetari bati gutxitan suertatuko zaio horrelakorik, mundu guztian ezagun diren Manta Kantxas, Romina eta Albano, Julio Iglesias edo Zubi Mehta bezalako artistak, batera elkarrizketatzeko aukera izatea. Honelako elkarrizketa egin aurretik asko pentsatu beharra dago, zer galdetu hain jende famatuari: Golkoko esperientzia nolakoa izan den? Oraindik elkar maite duten edo irudia besterik ez den? Txabeli benetan berea den?... Arrasateren kasuan, lehen aipatutakoak Josu Galdos, Julian Lezeta, Rosi Katanga, Esteban Dolara, Iñigo Txintxurreta edo beste 50en bat lagun izan daitezke. Azkenik aipatutakoak gugandik hurbilago badaude ere, elkarrizketak ez du bat ere garrantziarik galtzen. Azken finean, nor da artistagoa?

Hilabete entseiatan


Larunbateko Play-Back jaialdia prestatzen lau bat hilabetetan badabilta ere,

Gabonak pasatu arte ez ziren entseiuak hasi. *"Denbora guzti honetan, saioan parte hartuko dugun guztiok, -diote jaialdiari buruz hitzegiteko bildu ditugun bost lagunek ez gara inoiz bildu. Bakoitzak bere egin beharrak izaten ditu eta horregatik oso zaila izaten da guztiok elkartzea. Alde horretatik, ezin dugu esan jaialdia ondo edo gaizki aterako den, osorik geuk ere ez dugulako ikusi. Ondo aterako delakoan gaudede, baina badaezpada, ikustera joaten direnei tomateak eta arraultzak eramatea es-*

"Badaezbada, jendeari tomateak eramatea eskatuko genioke"

katuko genieke".

Aurrekoa txantxetan esan badute ere, egia da jaialdiaren entseiu orokorra egin arte lasaitasun handirik ez dutela izango. Entseiu orokorra ez



Zenbaitek nahiko balute ere, Marta Chavarri ez da Amaian izango.

egiteaz gain, bada beste arrazoitik jaialdian parte hartuko duten artistak arduratuta egoteko, sarreraren salmentarena hain zuzen. *"Iaz, jaialdi hau egiten genuen lehen aldian zenez, ez genekien jendeak erantzun zuten edo ez. Horixe zen gehien kezkatzen gintuena. Zorionez, jaialdia ikustera jende asko etorri zen, Amaia antzokia bete arte, eta uste dugu gustora atera zirela. Aurtengoa gogorragoa egiten zaigu, bakarrik pentsatzeak sarre-*

Beldurrez ere

Agertokiko argiak pizten direnerako eta antzokiko teloa zabaltzen denerako, aurrez aipatzen zen erantzunkizunari beste sentimendu bat gaineratzen zaio, beldurra, alegia. *"Eguneroko bizimoduan hala gertatzen ez bada ere, denok gara artistak. Hau da, ez daukagu jendaurrean agertzeko aparteko eragozpenik. Hala ere, teloi ostean zaudenean, teloa zabaltzeko segundu bakar batzuk besterik falta ez direnean, kaka larriaz egingo zenuke hanka. Behin teloa irekitzen denean ez dago bueltarik, jendaurrean zaudede, ahalik eta hoberen egitea, besterik ez dago"*.

Teloa ireki zaie, eta antzokiko argi bikainek disdiraz erakusten dituzte batzuen eta besteen jantziak, arropak benetan haienak badira bezala. *"Jantzi eta prestakuntza guztiak geuk egiten ditugu. Arropa zaharrak apro-*

betxatuz, berriak diruditenak egiten ditugu. Norbaitek zer-bait erosi beharra badauka, ordaindu egiten zaio, baina ahal izanez gero, nork berea egiten du".

Diru kontuak

Jaialdia bukatu da. Ikusleak, ondo, gaizki edo hala nola pasatutakoak, antzokitik ateratzen dira. Artisten beldurrak ere toki beretik joan dira. Une horretan bertan hasten da artistentzat jai partikularra. "Beno, iaz afari pare bat egin genituen eta aurten ere, gauza bera egiteko asmoa daukagu. Albano eta Romina, Manta Kantxas, Julio Iglesias, eta



Iaz musika banda serio askoak jo zuen jaialdian

**Astlehenean
ATBko
programazioan
ikusi ahal izango
da.**

Merkea da bai, Play-Back jaialdia, 394.000 pezetako aurrekontua bait dauka. Haratuzteetako jai egitarauan sartzen denez, esatekoa da Amaia antzokiko gasturik ez dela ordaintzen.

ATBn ikusgai

1.192 pertsona dira Amaia antzokian sartzen direnak. Beraz, arrasatear asko jaialdia ikusi ezinik kanpoan geldituko dela argi dago. Horregatik, jaialdia bi aldiz egiteko proposamena ere aztertu zen, baina azkenik baztertua izan zen. Zuzenean ikusi ezin dutenek ez daukate zertan kezkatu, astelehenean, hilak 11, ATBk eskainiko bait du, 9.30etatik aurrera.

gainontzeko guztientzat Arrasate berezia delako egiten dugu hain merke".

Julio Iglesiasen kasua bereziki aipagarria da, "Iaz bezelako txalorik ez dut inoiz jaso. Hori kontuan hartuta, aurten itzultzea pentsatu dut. Gainera, hemen ikusleak ondopasatzera etortzen dira, eta garrantzitsuena benetan, eurentzat eta guretzat, horixe da".

Otsailak 9, gaueko 10etan...

- Cabaret-a.
- Orkesta se-fornika.
- Korrika-Domeka-Paubaroti eta Zubi Mehta.
- Julio Iglesias eta hirukiak.
- Tina Turner.
- ACE-DCE.
- Manta Kantxas.
- Pinpinela.
- Albano eta Romina.
- Jazz orkestra.
- Zisneen lakua.
- Mamboa.
- Nafarroa Oinez.
- Saiotik saiora hainbat esketx, eta Nafarroa Oinez saioan jaialdian parte hartuko duten artista guztiak aterako dira, euren artean jaialdiaren bultzatzaile, eragile, sortzaile, arduradun eta antolatzaileak Antxon Zumalde eta Jesus Mari Artze.

Kabia **altzariak**
Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BRANKA
jatetxea
Eguneko menua eta karta

Indarberritu den lehoi arrasatearra



RONEO

■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

•1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoi heldu zaio.

•1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza



Izerdi puntuak


Bigarren faseari hasiera eman zaio, eta argi dago puntuak eskuratzeko izerdia bota beharko dela.

Taldeek ez zioten hasiera makala eman Zaldibarko txapelketako 2. faseari. Jokatutako 12 partiduetatik 5 berdinketaz bukatu ziren, eta beste 4 gol bateko aldeaz. Ondorioa: indarren parekotasuna.



IKER

Xkey

FAGOR 

SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43

BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42

JMA



A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	1	1	0	0	11	3	2
Kriskibalda	1	1	0	0	7	3	2
Camerun's	1	1	0	0	4	3	2
Artzankos	1	0	1	0	3	3	1
Autovia patutia	1	0	1	0	3	3	1
Bar Artano	1	0	0	1	3	4	0
Potrozorri	1	0	0	1	3	7	0
Zortzikin nahiko	1	0	0	1	3	11	0



Bizkorak. Ezkerretik-eskumara. Zutik: Jon Moreno "Nisin", Karlos Rous, Ignacio Carrasco, Ignacio Rodriguez, eta Agustin Sagasta. Makurtuta: Jose Luis Iburguren "Txelis", Rufino Ugarte "Goiru", Jose Antonio Sagasta "Raku", eta Karmelo San Pedro.

B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Golfos Persicos	1	1	0	0	3	2	2
Bizkorak	1	0	1	0	1	1	1
Alberrak-Aldatz	1	0	1	0	3	3	1
Lorategi-Potroak	1	0	1	0	4	4	1
Adelaida	1	0	1	0	4	4	1
Fosforo's	1	0	1	0	3	3	1
Arrasate Kirolak	1	0	1	0	1	1	1
Sokoa 600	1	0	0	1	2	3	0



Los Heredia. Ezkerretik-eskumara. Zutik: Juan Ignacio Errasti "Boti", Bautista Bolinaga "Baus", Andres Gutierrez "Guti", Pello Beltran "Pojo". Makurtuta: Pako Altube "Paquete", Joseba Ormaetxea "Palizas", eta Jon Mikel Arabaolaza "Arrabaolaza".

C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Bar Kajoi	1	1	0	0	6	1	2
Sum. Ind. Ugarte	1	1	0	0	3	1	2
New Laso Arregis	1	1	0	0	4	3	2
Zuloak	1	0	1	0	3	3	1
Diego Antonio	1	0	1	0	3	3	1
Pepelus	1	0	0	1	3	4	0
Rayo Vatica-no	1	0	0	1	1	3	0
Los Heredia	1	0	0	1	1	6	0

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489



Non ote da baloia? Futbitoan sarritan egin daitekeen galdera. Izan ere, Zaldibarko kantxa hain txiki gelditzen da, askotan bote eta erreboteen artean erasotik defentsa lanetara pasatzeko segundu bakar bat besterik behar ez dela izaten.

EMAITZAK

A taldea

Argi Ibili 11	Zortzikin Nahiko 3
Bar Artano 3	Cameruns 4
Potrozorri 3	Kriskibalda 7
Artzankos 3	Autovia patutia 3

B taldea

Bizkorrak 1	Arrasate Kiroiak 1
Alperrak Aldatz 3	Fosforos 3
Lorategi Potroak 4	Adelaida 4
Sokoa 600 2	Golfos Persicos 3

C taldea

Zuloak 3	Diego Antonio 3
Bar Kajoi 6	Los Heredia 1
New Laso Arregis 4	Pepelus 3
Sum. Ind. Ugarte 3	Rayo Vatika-no 1

ATEZAINAK

Jose
Miguel
Perez



Bigarren faseko lehen ihardu-naldia pasa eta gero, hiru atezain daude gol bat besterik jaso ez dutenak: argazkikoa, Bizkorrak taldeko Carlos Ros, eta Suministros Ugarteko Javier Murguzur.

OPEL 
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.
Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86


Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67


GATZAGA
Jatetxea

**EGUNEROKO
MENUA
ETA KARTA**

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53
ARRASATE

**Otsailaren 1.
zenbaki
saritua:
7.843**

Ebaki eta gorde txartel hau!

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzeko epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

**KAJOI
TABERNA**

Erdiko kale 22, ARRASATE

14490



Txutak

EZER ARGITZERIK EZ

Oraindik, Zaldibarko futbito txapelketako bigarren faseko partidu bat besterik jokatu ez bada ere, azpimarra daitezkeen gauza batzuk badaude. Txapelketa honetako lehen faseko emaitzek pentsarazten zuten bezala, Argi Ibili taldea txapelketa irabazteko faborito nagusia da. Gogora daiteke, lehen fasea bukatu eta gero gol gehien sartu zuen taldea bera zela. Bigarren fase honi ere era berean eman dio hasiera, hau da, gol ugari sartuz, eta orain-

goan Zortzikin Nahiko taldea izan da 11 gol jaso behar izan duena. Horretaz gain, aipagarriak dira Kriskibalda taldeak Potrozorri sartutako zazpi golak, aurrez ez zen espero eta. Bar Kajoik Los Herediari 6 gol sartzea harrigarria da, baina diotenez, jokoan ez zen hainbesteko alderik eman.

Asteburuan bigarren ihardunaldiko partiduak jokatu dira. Guztiak interesgarriak izango direnez ez, dago bereziki bat aipatzerik. Gogoratu behar da, hasiera hasieratik fin ibili beharra daukatela jokalariek, talde bakoitzetik bi ekipo besterik ez dira sailkatuko eta.

Beñardo Kortabarria

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Argi Ibili	Cameruns
Bar Artano	Zortzikin nahiko
Potrozorri	Autovia Patutia
Artzankos	Kriskibalda

B taldea

Bizkorak	Fosforos
Alperrak Aldatz	Arrasate Kirolak
Lorategi Potroak	Golfos Persicos
Sokoa 600	Adelaida

C taldea

Zuloak	Los Heredia
Bar Kajoj	Diego Antonio
New Laso Arregis	Rayo Vatika-no
Sum. Ind. Ugarte	Pepelus.

GOLEGILEAK



Elizaran

4 gol. Jose Martin Elizaran, Argi Ibili ekipokoa.

3 gol. Eleuterio Cid, Argi Ibilikoa. Jose Luis Barreiros, Kriskibalda taldekoa. Mikel Aiastui, Diego Antonio taldekoa, eta Pascual Bar Kajoj taldekoa.

BASTIDA

- Mekanografia
- Takigrafia
- Informatika
- Kontabilitatea
- Klase partikularrak

Ferrerias 44, etxebehea, Tfnoak: 79 32 16 / 79 77 13
ARRASATE

Arrasate

OPTIKA - OFTALMIKA


ERABILI ETA BOTATZEKO LENTILAK.

ESKATU INFORMAZIOA

Kontzezino kalea 6, Tfnoa: 79 25 98

ARRASATE KIROLAK

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12





Miriam Urkia

Euskaraz eguneratzeaz arduraturik

Aretxabaletatik Donostiara Euskal Filologia ikastera joan zen urte berean hasi zen UZEIn lanean, orduka. Bost urteen amaieran, bertan jarraitu du lanean eta burubelarri dihardu, ordutik, EEBS azterlanean eta zuzentzaile ortografikoarekin dihardu lanean euskara eta ordenadoreak uztartu nahian.

- Zer da EEBS proiektua?

- Egungo Euskararen Bilketa lan Sistematikoa esan nahi du. XX. mendeko lexikoa jasotzen ari gara Orotariko Hiztegiak lan historikoa jasotzen ari diren bezala. Lan honetan bost lagun ari gara, hiru egun osoan horretan, beste bat prestatzen eta idazkaria.


Hasieran berrehun milioi tik gora hitz jaso eta inbentarioa egin genuen. Hortik bi milioi testu-hitzeko lagina atera genuen, gaur egun lantzen ari garena.

- Momentu honetan eskuarteak daukazuen lana orain arteko guztia lematizatzea da. Zer prozesu jarraitzen duzue horretarako?

- Testuak jaso eta scanneretik pasa ondoren, Baionako SEI taldeak programa berezia prestatu zigen. Li-

buru bakoitza zein epetakoa den kontuan hartuta, euskalkiari begira, eta testu motaren arabera: poesia, saiakera lana eta abar. Maiztasuna ere kontuan izan dugu. Testuen aukera aleatorioki egin zen.

Testu hitz osoari hiztegi sarrera jartzeari esaten zaio lematizatzea. Adibidez, *etxearekin* badaukagu, *etxe* bakarrik jasotzea. Momentu honetan, beraz, bi milioi testu-hitz horiei lema jartzen ari gara, eta hori aurten bukatuko dugulakoan gaude. Pentsatzen ari gara datorren urtean adierak lantzen, kategoriak eta definizioak jartzen hastea.



Euskara ez da baserriko kontua, eta informatikarako ere gai dela demostratu nahi dugu UZEIn"

- Burututako lanaren aplikazioa nola egingo da, liburukietan ala informatika erabiliz?

- Asmoetako bat informatikaz baliatzen jarraitzea da. Oraindik ez daukagu argi liburu eran aterako den, ala nola, Euskaltzaindia eta Jaurilaritzarekin egindako hitzarmenak jarraipenik izango duen edo ez, ikusteko

dago eta. Material hori laguntza ikaragarria izango da. Guk uste dugu informatikako aplikazioak euskarara ere ekarri beharra dagoela, eta oso garbi dago ordenadoreak dagoeneko leku denetan erabili behar direla. Betiko apaletaz gain, ordenadorean eduki behar ditugu eskuarteak erabiltzeko datuok.

- Horretaz gain, zuzentzaile ortografiko batean ere ari zara lanean, ezta?

- Bai *Xuxen* izenez ezagutzen dena, Itzulpen Automatikorako Tresna Baliagarrien diseinua da. Informatika fakultatean beka bat sortu zuten orain hiru urte, beste


litakoa aprobetxatu?

- Aztertutako ereduen artean Finlandian Koskeniemi sortutakoa aukeratu genuen, euskarara moldatzen zela iruditu zitzaigun eta. Lehen asmoa zuzentzaile egitea bazen ere, lehenengo analizatzaile morfologikoa egin behar zen, eta egin egin dugu.

Orain hiztegia aberasten ari gara, 10.000 hitz besterik ez dauzkagu orain arte sartuta eta. Prototipoa bera berehala martxan jartzeko moduan dago. Nire doktoradutza tesia ere gai horren ingurukoa izango da.

- Zer arlotan izango du aplikazioa?

- Jendea eske ari da dagoeneko. Hiztegia lantzen hasi ginenean sortu zitzaigun arazoa, ze, segun eta zeinek erabiliko zuen, halako hiztegia sartu beharko genion. Printzipioz, orokorrera jo dugu eta Kintanaren hiztegiaren oinarritu gara, maiztasuna sartuaz. Konkreтуagoa behar bada, gero egin daiteke hori sartzea. Erabiltzaile posibleen artean ikastolak, Egunkaria, Jaurilaritza eta abar daude, baina ezertan hasi aurretik eredia bera ondo landu nahi dugu, gero hori kanpora joango dela argi daukagun arren.



Saskibaloia partidu garrantzitsua

Centraljet Euskal Air, Arrasateko saskibaloia taldeak, larunbatean arratsaldeko 6etan Musakolan partidu garrantzitsua dauka, Deustuko Lasalle taldearen aurka. Arrasatearrek partidu hori irabaziko balute, seguraski mailaz igotzeko fasea jokatzeko aukera eskuratuko lukete. Jendearen animoa beharko dute segurutik.


Gay-k rekord berria

Joan zen asteburuan, Jose Antonio Gay arrasatearrak Gipuzkoako rekord berria ezarri zuen 400 metrotako frogan, 48-08 segundutako denbora eginez. Gipuzkoako txapelketa irabazita, Gay Estatuko txapelketan pentsatzen ari da, eta berak dioenez, 48 segundu baino gutxiago eginaz gero posible litzateke podiumera igotzea. Orain arteko gorabideari eusten badio, hortxe-hortxe ibiliko da arrasatearra.



Judoka arrasatearrak ondo

Pasa den asteburuan, Altzako kiroldegian burututako Gipuzkoako Judo txapelketan, Gaizka Aranegi arrasatearrak sub-17 mailan, txapeldun izatea lortu zuen. Maila berean, bigarren postua lortu zuena ere arrasatearra izan zen, Oskar Belmonte. Aipatutako bi horietaz gain, beste arrasatear batek ere parte hartu zuen txapelketa honetan, Barazil Bengoak, baina ezer lortu gabe. Gaizka Aranegi eta Oskar Belmontek asteburu honetan Euskadiko txapelketan hartuko dute parte, eta irabaziaz gero, Estatukoan.



LASA-AGUILERA aholkularitza

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-asegurua
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.a
- Errenta aitortpenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak


GAIZKA ARANEGI

Judoan txapelduna

Altzako kiroldegia Gipuzkoako judoka hobereenen topagune bihurtu zen joan den asteburuan. Izan ere, Gipuzkoako txapelketak burutu ziren bertan, eta txapelketa horietan hiru arrasatearrek hartu zuten parte: Barazil Bengoa, Oskar Belmonte, eta Gaizka Aranegik. Azken honek, sub-17 kategorian, txapeldun izatea lortu zuen. *"Erraz irabazi nuela esan daiteke. Hiru borrokaldi egin behar izan nituen, eta ez zitzaidan gehiegi kostatu. Azkenengo borroka, Oskar Belmonteren aurkako izan zen. Beraz, nik edo berak irabazi, titulua Arrasatera etorriko zen"*.

Gaizka Aranegik 14 urte dauzka eta mutikote handia eginda dago, 78 kilo inguru bait dauzka. Sub-17 kategorian lehen aldiz parte hartzen zuela eta, aurrez ez zuen espero garaipena eskuratzerik. Beste hainbat ume bezala, txiki txikitatik hasi zen judo mundua ezagutzen, oraindik gerriko beltzera eramaten duen bidean zen-bait urrats falta zaiolarik. *"Lau urte-ekin hasi nintzen judo egiten. Hasten diren guztiak bezala, gerriko zuria daraman. Gero, poliki-poliki mailaz igotzen joan naiz eta orain gerriko urdina daukat. Ekain inguruan, gerriko marroira pasatzeko*

PODIUMA



esperantza daukat, eta beltzera noiz iritsiko naizen, iristen banaiz, denborak esango du".

Gerriko beltzera iristeko presa handiegirik ez dauka Gaizka Aranegik, bai ordea, igande honetan Errenderiko kiroldegian burutuko den Euskadiko txapelketan parte hartzeko. *"Irabazi egingo dut, behintzat horretarako prestatu naiz"*.

Gaizka Aranegik aurreko hitzak gehiegi pentsatu barik bota ditu, eta ondorioz pentsa daiteke mutik urduri samarra dela, behar bada ez oso egokia judoaren teknikaz baliatzeko. Bere ondorengo hitzek e-lehen pentsatutakoa. *"Judoa defentsarako kirola da, inoiz ez erasorakoa ezeztatzen dut. Horiaz, ez da sekula erabili behar norbera baino ahulagoak diren pertsonen aprobetxatzeko edo min emateko, nork bere burua defendatzeko bakarrik eta kirol bezala"*.

◆ Emakumezkoen futbola

Arrasateko emakumezkoen futbol taldeak, denboraldiko bigarren garai-pena lortu zuen Alde Zaharra taldearen aurkako partiduan, 2 goleko abantaila lortuz. Partiduko lehen zatia oso parekatua izan zen, baina bigarrean arrasatearren sasoia nagusitu zen.

Arrasatekoak irabazi zuen bezala, Aretxabaletako taldeak galdu egin zuen 2 eta 5eko emaitzaz, Dumboa taldearen aurrean. Partiduko lehen minutuetan, atxabaltarrak hobeak izan ziren, baina hasierako indarrak galdu ondoren, Dumboak taldea nagusitu zen.

◆ Gizonezkoen futbola

Emaitza txarrak lortu zituzten Arrasateko bi talde nagusiek joan den asteburuan jokaturako partiduetan. Alde batetik, hirugarren mailako Mondra taldeak, ezin izan zuen berdinketa lortu Arenas-eko futbol-zelaian. Mondragoetarako futbol-zelaiko jaun eta jabe izan ziren, baina baloia atean sartzeko orduan ez zuten asmatu, ondorioz 1 eta Oko emaitzaz galdu zutelarik.

Okerrago joan zitzaizkion gauzak San Andres futbol taldeari, etxean bertan, 1 eta 5 galdu zuten eta. San Ignacio taldeak ez zuen inolako arazorik izan mondragoetarren nahiak gainditzeko.



- * Candanchu: Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.
- * Astún: Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.
- * Valdezcaray: Elur hautsa. Pisten %70a zabalik.

egizabal

Bidekurutzeta 13,
BERGARA

Elisabete

Ariketa fisikoaren ondorioak

Orain arte esandako guztitik atera daitekeen ondorioa hau izango litzateke: ariketa gogor egitea epe laburrera arriskutsua izan daiteke ere, epe luzera lortzen diren onurekin konpentsaturik geratzen dela.

Dena den, pertsona batzuek beste batzuek baino arrisku handiagoa ote dute ariketa egiten ari direla zer-bait gertatzeko? Alde batetik bai: aurretik familiarren artean infartoa edo bapateko heriotzak dituztenek, konditazio edo obesitatea dutenek, hipertentsio arinekoek, kolesterol handikoek, stressaturik dabiltzanek... berez probabilitate handiagoa dute,



baina era berean hauek dira onura handiena lor dezaketena ariketa eginez. Ez dute inola ere galerazita ariketa fisikoa egitea, baina azterketa mediko sakona egin beharko lukete kirolgintzan hasi baino lehen.

Miaketa fisiko ona, elektrokardiogramaz osatua, nahiko izan daiteke; baina inoiz ariketarik egin ez duten helduen kasuan, arrisku-faktoreak izanez gero batez ere, esfortzu-proba batez osatzea komeni da zalantzarik gabe; horrela jakingo da nolako den bihotzaren erantzuna esfortzu baten aurrean. Proba honen emaitza ona izanez gero -negatiboa, alegia- lasai has zaitezke kirola egiten, arrisku txikia bait duzu. Dena den, honelako pertsonentzat ariketa aerobikoa da egokiena: korrika egitea, bizikletan ibiltzea, igeri egitea ...

Baina kontuz, ekitaldi bakoitzaren aurretik, derri-gorrezkoa da 5-10 minutuz berotzea, gelditasunetik

ariketa bizira gorputza bapatean pasa ez dadin. Hau berriro azpimarratzea komeni da bere garrantziagatik, horrela gutxitu egiten bait da istripu eta lesioen arriskua.

Astean zehar zer egin ez eta egun batean futbito edo squash-ean hasten direnak stressatuak egoten dira, eta arropa kendu bezain laster jolasean hasten dira, aurrez bat ere berotu gabe; horrela arriskutsu eta lesio-iturri bihurtzen delarik ariketa hori. Squash edo futbitoa ez dira berez arriskutsuak, praktikatzeo era hori baizik.

Kirola osasuna hobetzeko da, ez alferrik galtzeko. Hau da inoiz ahaztu behar ez duguna.

Eukeni eta Arantxa



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldíspe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97


Goian Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

Batuta

Albina Madinabeitia

Arrasatek musika munduan eman dituen pertsonaien artean, inportanteenartariko batek irekiko du astez-aste musikari eskainiko zaion orrialde hau: Albina Madinabeitiak, hain zuzen. Santa Ageda egunean 82 urte bete zituen Albinak, zorionak beraz, eta bere bizitza osoan egin duen bezala, eguneko lehen orduak bibolinari eskaini zizkion. *"Bibolina, musika instrumento gehienak bezala, egunero ikasi behar da. Ia 80 urte daramatzat bibolina jotzen, eta oraindik ere egunero zerbait berria ikasten dut. Urte betetze eguna ederki asko pasatu nuen. Ikasle izandako ugari etorri zitzaizkidan zorionak ematera, makina bat opari ekarriz"*.

Albina Madinabeitia, musikak eskaini dezakeen gailurretaraino iritsi, eta urte askotan bertan ibilitakoa da. *"Txiki txikitatik, aitaren eraginez bibolinerako trebetasuna erakutsi nuen. Bartzelonan egin nituen lehen ikasketak, baina gogorregi jotzen nuela eta, Madrilera joan nintzen, bertako kontserbategira. Kontserbategian urtero lehen saria ateratzen*



nuen, eta baita Sarasate saria ere. Makina bat kontzertu eman nituen orduan, baita Alfonso XIIIaren aurrean ere. Urte mordoia egin nituen Orkestra Nazionalean, kantari eta musikotxo hoberenak ezagutuz".

Urteak pasatu eta Arrasatera etorri beharra izan zuen, baina inolaz ere lana utzi, Arrasate Musikalen duela gutxira arte eskolak eman dituelako.

Albinak jakin badaki, Arrasatekoen artean, musikari ona izan dela. Hala ere, agurtu aurretik, bere osaba Gasparren berri eman nahi izan zuen, arrasatearra hura ere. *"Madrileko Orkestra Nazionalean tuba jo zuen urte luzetan; fenomeno zen, izugarri ona, baina hemengo jendeak ez du horren berri eta penagarria da, tuba jotzaileen artean dudarik gabe onena zelako"*.

Bibolina egunero ikasi beharra dago

Txio txioak

Goikobalu Britainia Haundira

Aste Santua aprobetxatuz, Goikobalu abesbatzak astebete emango du Britainia Haundian, Galesen batez ere. Espedizioa martxoaren 28an irtingo da Cardiff hirira, Galesko hiriburura, autobusez. Cardiffen bertan, Swansea eta Camarthen herrietan kontzertuak emango dituzte. Azkena Newcastlen, Ingalaterran. Buelta apirilaren 5ean izango da.

Bidaiaren aurrekontua 5 milioikoa da eta kontzertuez gain, bidaiak gales-tar eta euskaldunen arteko elkartasun eta lankidetzaren loturak sendotu nahi ditu. Asmo horien arabera, udazken partean edota datorren urteko Aste Santuan galestar talde bat etorriko litzateke Arrasatera. Herri bien arteko harremanak Arrasaten bizi den Judy Barnes irakasle galestarrari esker lortu dira.



"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

Alfabetizazioaren nazioarteko urtea dela eta... (VI)

Arrasateko Udal Euskaltegia (3. atala)

Aurreko atalean esandakoari helduz, hona hemen euskaltegi honek eskaintzen dituen aukera batzuk.

Honetarako aukerak daude:

a) Urte osoko ikastaroak: egunean bi edo hiru orduetan, irailetik ekainera bitartean.

- Prozesua norberak dakien euskara kontziente bihurtu eta ezagutzearekin hasten da, ondoren eguneroko oinarrizko beharrei erantzuteko mailara igaroz, azkenik hizkuntz maila ikasi eta landuaren mailara igoz.

• Euskaraz alfabetaturiko pertsona: "Kultura orokorraren mailan hizkuntzaren lau ebetasunak (entzuteko ulermena, mintzamina, irakurriaren ulermena eta idazmena) euskaraz ongi erabiltzeko gauza dena.

• Alfabetatzea hizketan daki-tenentzat da.

• Helburu nagusia irakurtzen eta idazten trebatzea da.

b) Ikastaro bereziak: gutxienez 120 ordukoak, kolektibo desberdinei zuzenduak.

- Ikastaroaren xede-taldeari dagokionez, argi geratzen da euskaldungoarengana iristea dugula helburu, baina kanpaina diseinatzerakoan interesgune berezia markatzen da.

- Oso argi uztea komeni izaten da kanpainaren zertarakoa. Gaur egun jendeak oso gutxi idazten eta irakurtzen du, izan ere, behin ikasketak amaituz gero, lanbideak eskatzen ez diolako. Honek ez du euskararen kasurako bakarrik balio, baina bizitzan zehar idatzi edo irakurri behar dugun apur hori txukun egiteko badugu gazteleraz euskaraz ez dugun behar besteko prestaketa eta "entrenamendua". Horretarako hizkuntzaren ezagutza teorikoak alde batera utzita, eguneroko suerta dai-

tezkeen hainbat funtzio sinple txukun egin ahal izateko "entrenamendua" eskaintzen da; hau da, mintzaminean eta ulermenean eman daitekeen garapenarekin batera, irakurmenean Arrasate Press, eta antzerako argitalpenak ulertzeko bidea eskaini, eta idazmenean ohar laburrak, taloia, telegramak, eskutitz errazak, bilera-deiak eta antzerako funtzio arrunt eta sinpleak euskaraz txukun egin ahal izateko behar den prestaketa, "entrenamendua" eman.


- Horrekin batera, ez dugu ahaztu behar euskara era askotan hitz egiten dugula. Orain arteko gure esperientzian izan dugu norberaren herriko hizkera ezdore edo txartzat jo duenik, beste hizkera batzuei txukunago edo politago eritiz eta areago, baituaren "garbitasuna eta dotorezia" hobetsiz. Honekin esan nahi dugu euskaldun askok beste hizkere-

kiko konparaketak egiteko joera erakusten duela norberarena traketsagotzat hartuz, edo euskararen eredia beste hizkera batzuetan jarriz. Guzti honengatik garrantzitsua iruditzen zaigu norberaren hizkera baloratetik hasia; izan ere, derrigorrezko abiapuntua bait da norberaren hizkuntz erreferentzietatik hasi eta eustea.

c) Udako-ikastaroak: uztailean, egunean 5 ordu goizez.

Bistan da, Euskaltegiaren eragingarritasunaren murrizta, batez ere hasieran aipatu bezala, alfabetizazioaren garapena norbanakoak burutzen duen erabile-ra sozialean ardatzen bada, hau da, Euskaltegia utzi ostean maila batean zein bestean gaitutako pertsonak burutzen duen gizarteurreko erabilera.


Arrasateko Udal Euskaltegiak "Klarion" taldearentzat idatzita.



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Iñaki Galparsoro

Gesalibar eta
Garagartzako apaiza



Iñaki Galparsororen Ford Fiestak hiru urte ditu eta, normala denez, oraindik ez du matxurarik izan. Bizi-bizi gidatzen duela aitortzen du Iñakik, "baina beti legearen barruan". Iñakik kilometro mordoska egin omen ditu, eta ez da arraroa, bera ataundarra izanik, asteburuetan hara joaten delako. Irratia ere badauka, "autoak berak zekarren fabrikaik", gehiegi entzuten ez duen arren, "bertsozale amorratua naiz, eta gehienbat horretxek entzuten ditut".

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabehea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE

Tontorretik sagardotegira

Ailaren 17rako, urtero bezalaxe, Besaide M. Elkartek antolatuta, prest dago beste mendi txango bat. Mendi irteera hau berezia dugu eta mendira joateaz gain beste "ekintza kultural" bat ere jorratzen du. Plana ederra da! Goizeko 7etan Garibaitik atera eta Bidaniatik eta Ermiotik ibilialdia egin ondoren, Sagardotegi batean bazkaria egiteko asmoa dago. Besaidek, antza denez, ibilialdiak eta sagar ardoaren edo uraren betekadak elkar garriak direla egiaztatzen ahalegindu behar da. Gu geu behintzat konpatibilitate hori frogatzen ahaleginduko gara

eta mendiko botekin batera bikarbonatoa ere hartuko dugu.

Honako hauek dira prezioak.

Bazkideak: 2.800 pta.

Ez bazkideak: 3.100 pta.


Gazteak: 2.400 pta.

Elurbizi baten azpian

Joan den larunbatean, bost arrasatear hartu zituen azpian elurbizi batek San Lorenzo mendian. Argazkian ikus dezakegun Gorkak sorbalda apurtu zuen istripuan eta besteok nahiz eta elur azpitik urteteko goardia zibilen laguntza behar izan, osasuntsu atera ziren.

Kontuz hurrengoan!

Hankamotz




Gorka, sorbalda apurtu baino minutu batzuk lehenago

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Erdiko kale. 79 19 37



errerias. 79 87 62

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia

(Ohe bustitzea), eukopresia


Ignazio Zuloaga kalea 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

MUSAKOLA OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkarlak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburusak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aste gazte

Aintzinean, gazte batek eremita batengana jo zuen, bizitzarako arau eske. Jakintsuak zera hau erantzun zion: "Ez desiratu lortu ahal duzunabaino". Gazteak eskerrak eman eta beste arau osagarri bat eskatzerik bazuen galdetu zion. Orduan, eremitak lehenengo aholkuari honako hau erantsi zion: "Desira ezazu lortu ezin duzuna".

Ernest Junger



Astegazte 91-02-08.
Lan-lhardunaldiak

- Aste Santurako Lan-lhardunaldiak:
 - Sa Torrentera (Mallorca). Lana: lanabes-etxe bat berreraiki eta naturan ibilbide bat egin. Ostatuketa: kanping-dendetan.
 - La Real (Mallorca).

Lana: La Realeko monasterio kontserbazio-lanak: egurrezko zutabeak, ateak, etab. Ostatuketa: monasterio.

Egunak: martxoak 17-31. Adina: 18-22 urte. Hizkuntzak: ingelesa, gaztelera. Prezioa: ±5.000 pta., gehi bidaia. Izen emateak: lehen bailehen.

- Bretania Haundian. Lan ezberdinak. Hiru txanda: Martxoak 24-Apirilak 6, Martxoak 31-Apirilak 14, Apirilak 2-12. Adina 18-26 urte. Prezioa: 5.000 pta, gehi bidaia.

Lanpostu-Deialdiak

- Errenteriako Udalak Udaltzaingorako 9 lanpostu (funtzionario bitartezko izaez) betetzeko deialdia egin du. Betebeharrak: 18-29 urte izan, Graduatu Eskolarra, LH-1 edo titulu baliokidea, 1,70 m.ko altura gizonak eta 1,65 emakumeak, eta B-1

mailako gidatzeko karneta. Eskabideak aurkezteko epea: otsailean.

Bekak

• 1991.eko udan Frantzia Linguistika ikasteko bekak. Eskatzaileak: karre-rako azken mailako ikasle eta lizentziatuak. Dirulaguntza: matrikula, lojamendua, mantenua eta bidai-laguntza. Iraupena: hilabete. Epea: 91-02-22.

* 1991-92 ikasturtean Bavieran ikasteko bekak. Gaiak: Zientzia eta Arteak. Eskatzaileak: goi mailako graduatuak edota alemanera menperatzen duten karrerako azken mailako ikasleak. Dirulaguntza: 800 DM hilero. Iraupena: zortzi hilabete. Epea: 91-02-22.

* Europar Kontseiluaren Norvegiarako bekak. Gaiak: edozein gai. Eskatzaileak: lizentziatuak. Dirulaguntza: 5.100 norvegiar koroa hilero

eta 1.500eko gehigarria lehenengo hilean, lojamendua ordaintzeko. Iraupena: bederatzita hilabete. Epea: 91-03-01.

Ikastaroak

• Neguko II Adierazpen Ikastaroak (Euskadiko Adierazpen Eskola):

- "Soinuaren munduari ekitea". Egunak: martxoak 15, 16 eta 17. Bilbon. Matrikula: 6.000 pta.

- "Ohartzetik sormen kolektibora". Egunak: martxoak 23, 24 eta 25. Bilbon. Matrikula: 6.000 pta. Izena emateko epea: 30 egun lehenago.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Fotokopiak
Enkoadernazioak
Planoen erreproduzioak
Offseta
Ferrerias 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAleta

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

ETXEBIZITZAK

- **Neska behar da etxebizitza konpartitzeko.** Deitu astelehenetik ostiralera bitartean gaueko 9.00etatik aurrera 79 54 61 tfnora.
- **Donostian etxebizitza konpartitzeko txokorik baldin baduzu deitu 79 24 52 tfnora.** Joseba.
- **45m²ko lokala saltzen da oso merke.** Edozein motatako negozioa jartzeko. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. Astearte-larunbata bitartean 9etatik 1era.
- **Logela alokatzen da bi oherekin.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza salgai Zarugalde kalean.** Garajea eta ganbara. Guztiz berria. Tfnoak: 77 09 33 eta 79 04 69.
- **Aramaion etxebizitza salgai.** Erdi amueblatua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jantokia, ganbara, banakako kalefakzioa eta garajea. Tfnoak: 945 - 45 50 75 eta 44 52 04.
- **Errenteria aldean lan egin behar dut;** pisuren batean logela librerik ezagutuz gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- **Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai.** 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.
- **Etxebizitza salgai Zaldibarren,** berriak eta prezio onean. 78m². Deitu konpromezurik gabe 77 12 22 tfnora. gaueko 9etatik aurrera.

LANA

- **OHOk klase partikularrak ematen dira** euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19. Itziar.
- **Emakumea umeak zaintzeko prest.** Tfnoa.: 79 97 58.

- **Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest.** Deitu 79 78 65 tfnora.
- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Interesatuak dei egin 79 29 05 edo 79 77 57 tfoetara.
- **Fisika klaseak ematen dira.** Goizean eta arratsaldean. Tfnoa: 77 13 95.
- **Erretegi batean astebukaeretan lana egiteko bi emakume behar dira.** Tfnoa: 76 22 68.
- **Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak.** Tfnoa: 79 62 89.
- **Andrak etxeko lanak egingo lituzke orduka.** Tfnoa: 79 15 56.
- **Emakumea behar da Gasteizen etxeko lanak eta umea zaintzeko.** Tfnoa: (945) 23 29 74 (gauez).
- **Kimika klaseak hartuko nituzke (1.** Injinerutza) Tfnoa: 80 12 54.

SALEROSKETAK

- **Adi mendizale!**
- Kastinger goi-mendiko plastikozko botak, barreneko botinaz 40-41 zenb.
- Kamet laruzko goi-mendiko botak 43 zenb.
- Camp markako kranpoiak eta pioleta salgai. Nahiko merketxo. Interesatuak deitu 79 92 92 tfnora. Juan Carlos.
- **Orbea Mustang mendiko bizikleta,** kalapiesak, argia, llanta eta pinioi berriak. Egoera oso onean 40.000 pta. Gutxi erabilia. Tfnoa: 79 54 65 egunero gauez. Garikoitzez galdetu, 9.00etatik 11.00etara.
- **Karro denda berria salgai.** Tfnoa: 799055 (94) 681 75 06.
- **Sukaldeko mahaia eta aulkia erosiko nituzke.** Tfnoa: 79 59 72.

- **Ebro L-35 kamioneta toldo eta guzti salgai.** VI-H. 190.000 km. Tfnoa: 945 - 44 51 12. Aramaio.
- **Opel Kadet-erako portaeskia salgai.** Tfnoa: 79 45 39. Josefe.
- **Orbea bizikleta karreretakoa salgai.** 54 neurrikoa. 79 90 03.
- **Autorako erremolkea salgai.** Neurriak 1,10x1m. Tfnoa: 79 50 96.
- **Hi-Fi ekualizadore ezin hobea salgai.** Digitala eta analizadorearekin, mikrofonoa ere badauka. Prezio onean. Intresatuak dei 79 47 90 tfnora. Javi.
- **Paseorako bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke.** Tfnoa: 79 48 97.

DENETARIK

- **Non, non dago Jo ta fuego?** Hor amonaren gonapean hotz dagoela eta irteteko beldurrez. Baina, beno, ordua da berriz ere Jo ta fuego martxan jartzeko ala ez? Animatu idazten Jo ta fuego.
- **Kaixo Arrasate!** Gaur Arrasate Press ailegatu zaigu. Beti bezala askotan pentsatzen dugu zuetaz. Zer moduz euskarazko klaseak, Karmel, Isi eta Esteban? Gora euskara? Sharryn eta Geoff.
- **Gaztea buzoneaketa egiteko prest.** Interesatuak dei egin 79 80 55 telefonora eguerdiko 2.30etatik 5etara eta gaueko 7.30etatik aurrera.
- **Udaberria datorrela eta, esnatu da Jo ta fuego.** Amona goixorik egon arren badu oraindik indarrak; beraz, hemendik aurrera Jo ta fuego martxan. Pospoloren paperei sua eman eta kasurik ez. Berandu bada ere, zorionak Patxiri eta pare bat muxu eta besarkada bat lparaldeko bi sorginei. Aurrera Jo ta fuego.



ARRASATEN HILDAKOAK



Mungia Aldana Crescencio,
urtarrilaren 30ean. 79 urte.

Garcia Davila Isabel,
urtarrilaren 30ean. 46 urte

Madinabeitia Barrutia Joxe,
otsailaren 1ean.

San Migel Larrea Basilisa,
otsailaren 2an. 80 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE


Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Fernando Zabarte

Txirrita jatetxekoa

- **Oinez ala autoz?** Auzoan bizi garenez, autoz mugitu beharra izaten dugu. Gainera tabernariok ez daukagu denbora handirik.
- **Kalea ala etxea?** Etxea, etxea.
- **Mendia ala hondartza?** Hondartza.
- **Musika lasaia ala trikitixa?** Gaur egunekoa gustatzen zait, modernoa.
- **Bezeroak, Arabatik ala Gipuzkoatik etorritakoak?** Berdinak dira biak.
- **Kafeko jendea ala txikiteokoa?** Txikiteokoa jatorragoa da.
- **Barra kanpoan ala barruan?** Bietan ere gustora egoten naiz.
- **Kafe hutsa ala ebakia?** Ebakia.
- **Kontuak ateratzeko, kalkuladoraz ala buruz?** Kalkuladora erabiltzea nahiago dut.
- **Idazteko, boligrafoa ala arkatza?** Kontuak eta egiteko boligrafoa, baina nire gauzak idazteko, luma.
- **Ardoa, beltza ala gorria?** Beltza nahiago dut.
- **Ehiza ala arrantza?** Ez bata eta ez bestea, ingurugiroa zaindu egin behar dugu, bertan bizi gara eta.
- **Angulak ala bixigua?** Gutxitan jatera angulak hobe, baina sarri jatekotan, bixigua.
- **Bezeroak, emakumezkoak ala gizonezkoak?** Gizonezkoak hobe. Emakumezkoak mahai inguruan jartzen dira, eta oiolokia ematen du honek.
- **Ardi-gazta ala behi-gazta?** Ardi-gazta.
- **Haratuzteak ala San Juanak?** Ez ditugu gehiegi bizitzen, ez bata eta ez bestea.
- **Entzun ala esan?** Biak, lehenengo entzun eta gero esan.
- **Bertsolariak ala kantariak?** Euskara ez dut menperatzen bertolariei ulertzeko beste.
- **Pilotan, eskuz ala palaz?** Bietara.
- **Igerian, hondartzan ala igerilekuan?** Igeritarako, piszina hobe.



Igarkizunak

Letrak eta zenbakiak

1. Iran-en azkena Nafarroan lehena edonork daramana baina zuk eta guk ez.
2. Borobil-borobila ematen du pelota, saguari ez bila hori falta zaio eta.
3. Lehoiak hasieran erdian maletak, zeuk asmatu non daukan zelaiko tximeletak.
4. Mikelek eta Mirenek badute baina Xabierrek ez, mendi eta muinoek ere bai baina zelaiek ez.
5. Botilaren muturrean naukazu eta ezinezkoa da edatea, baina ni ahozkatzeko hobe duzu bi ezpainak ongi ixtea.
6. Lau txoritxo adar batean eta bakoitzak hiru ikusten, ezetz asmatu instantean guztira zenbat diren.
7. Ez bi aldiz esan usain txarra dut eta, aurkituko nauzu kiloan baita ere bide bazterrean

Erantzunak: 1=n, 2=Oletra, 3=L, 4=M, 5=B, 6=4, 7=K.

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



Solaren lorategian (S. Juan auzoan). 1919

Seme nagusia Argentinara zihoala eta, argazki bat ateratzea erabaki zuten Berezi-bartarrek. Arropa dotoreak jantzi eta Mondragoen artean omen zegoen lekurik ederrenetakoa aukeratu zuten argazkirako: Solaren lorategia, gaur egun S. Juan auzoa dagoen tokian zegoen lorategi zoragarria.

Berezibartarrak Maalan bizi ziren, Aizkora denda dagoen lekuan, eta Iturriotz kalean harategia zeukaten. Aita Salturrikkoa zen eta ama Itsason-dokoa. Bazekiten semea Ameriketara joanez gero, seguruenik ez zutela berriro ikusiko eta horregatik argazkia, haren oroigarri gordrteko.

Ezkerretik hasita **Eugeni Berezibar**, **Pedro Berezibar** aita, **Juli Berezibar** (katuak txitximurka egin

ziolako negar egin eta gero katutxoak estu-estu besarkatzen), **Joxepa Arabaolaza** ama, **Pedro Berezibar** eta **Eugenio Berezibar**, Argentinara zihoana.

Joan zen, bai, Argentinara, eta hogeitamalau urte beranduago, 1953an, emaztearekin itzuli zen bisitan. Gaur egun hiru gazteak baino ez dira bizi.



HI-FI CARS SYSTEMS


**AUTORAKO
ELEKTRIZITATEA**

- Autorako soinua
- Alarmak
- Ekipamendua

Legarre Pabilioia, etxebehea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE



MUSAKOLAKO ESKOLA PUBLIKOA



GURE EUSKAL HERRIA
 Guze Euskal Herria,
 hain mirezgarria.
 Ez bota zaborra,
 hilko da.
 Zaborra badago,
 denbora ere bai.
 Denon artean,
 lortuko da.
 Hasedez ez hil.
 5. maila

5. maila MUSAKOLA

Zenbakiak jarraituz
 marrazteko
 egun

Beratsotan

Erekin lozes bore

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26

Ordena itzazu haundienetik
 txikietara.


O S A L M U K

3. maila

zorrik kantari?
 Leimelatak mendian
 porre dantari

zelaiari jolasean bi arume txuri matxinatutak
 eta kilekernak saltari.

Agur kukuari zeru urdinari haize gelari
 Uhaberrira
 porre betetsen goituz urtaruari



BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
 Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
 Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

H

il egin zaigu aita.

Egunero errepikatzen da haren hutsunea
etxe hustuan.


Galde egiten dut,
hutsuneaz gain,
lur honetako bideak galtzeaz gain,
heriotza zer ote?

Galde egiten dizut, aitta, zer da heriotza?
Merezi zenuen bakea lortu duzu?
Aterpe aurkitu duzu etxe berrian
edo noraezean zoaz negu gorrienaren,
erabateko maitasun ezaren
hotzak mindurik?

Galde egiten dizut, aitta, zeozer ote diren
hildakoak, edota heriotza
existentziarik ez daukan guzia
izendatzen duen hitz erraldoia besterik ez den.

*Alfonso Costafreda
(Poesía completa, Bartzelona, Tusquets 1990)*

Jon Iriberrik euskaratua



MIKEL LASA

ASEGURU ARTEKARITZA

**ASEGURU
ARTEKARIA**

Zure esanetara gauzkazu!

Maialako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

11 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua.** Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke,** umeen saioa, aste honetan La Merced ikastetxean grabatua.
- 20.00 **Berriak,** asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.20 **Mondrasport,** ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabariak zuzenduta.
- 20.35 **Saltsa Maltsan,** Jaione Olabek Solomoa Oporto erara prestatuko du.
- 20.45 **Erreportaia:** Ihauteriak Euskal Herrian zehar. Eskoriatzako Irakasle Eskolak prestatutako lana.
- 21.30 **Play-back jaialdia:** larunbatean Amaian izandako jaialdi handiaren laburpena.

12 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua.**
- 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 12.30 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 13.05 **Saltsa-Maltsan** (bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)
- 13.45 **Erreportaia** (bezperakoa)
- 14.30 **Play-back jaialdia** (bezperakoa)
- 20.00 **Haratuzteak:** programa berezia: umeen desfilea, etab.



13 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua.**
- 20.00 **Berriak,** Arrasateko albistegia, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Gaia: S. Balentin eta maitasuna.



21.10 **Berriak** (errepikaldia)

15 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak,** ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa,** J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Sor Cristina Leibar, Iturbide egoitzan lan egiten duen mertzedaria garagartzarra.



20.50 **Musikantoi,** Arrasateko taldeei buruz egindako erreportaia luzea. **Berriak** (errepikaldia)

16 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)



13.30 **Berriak** (errepikaldia)



22.30 **Berriak.** (Errepikaldia)

14 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- 13.10 **Haratuzteak** (bezperakoa)
- Berriak** (errepikaldia)

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

M MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE



Konpainia onean egon zen **Jose Mari Velez de Mendizabal**, *Zenbat buru*, hainbat aburu mahainguruaren azkenaurreko saioan. **Karmelo Eriz**, **Iriarte**, **Jose Mari Mendizabal** eta **Jesus Barutia**, denak Santa Agedako koruetako partaideak brusa eta txapelaz agertu ziren eta euren atzean zeuden beste abeslariak ere bai. Azkenean, Karmeloren zuzendaritzapean bi abesti eder kantatu zuten.



Play back jaialdirako sarrerarik lortu ez duzenok lasai egon zaitezketek, zeren astelehenean, hilak 11, Arrasate Telebistak Amaiako jaialdiaren laburpen luzea eskainiko bait du. Hurrengo egunean, ostera, asteartea izan arren, ATBk programa berezia eskainiko die **Haratuzteen** egintzaren egindako ekitaldi guztiei. Adi beraz ATBri.

Telebegi

Egunotan bizi dugun gerra egoera honek zerbait agerian utzi badu, informazioaren beharra da, eta mass-mediaren (prentsa-irratit-telebista) inplikazio zuzena informazioaren erabileran. Telebista, mass-meditan erregea, skud, patriot edo aurki daitekeen armarik onena baino bortitz eta indartsuagoa da.

Telebista da herritar gehien formazio eta informazio iturri ia bakarra. Bertatik jasotzen ditugu gure bizitza eta jokaerak gidatuko dituzten pautak kultural, moral eta pentsamoldeak. Azaiean gizaki guztiak ezberdinak, funtsean parekoak. Disidentziarik ez dago, planteiatzen ez delako, telebistaren bitartez jasotako pautak kultural, moral eta pentsamolde horien mugaz kanpo geratzen delako. Ezin planteatu unibertsoa dagoenik, guri lurraz kanpo ezer ez dagoela erakusten badigute. Ez dut sinisten telebista medio neutroa denik. Horren arma indartsuak izan behar du jaberik. Beharbada, zuetariko askok ezagutuko duzue Orwellen "1984", eta baliteke ez izatea horren apokaliptikoak. Ni, bitartean, eta niri dagokidanez, Muruko telebisten errepitidoreetan bonbak jartzen hasiko nintzateke, datozen urteak "1984" gerta ez daitezten.

Andoni Urzelai

Telebelarri

◆ Hamahiru-hamalau urterekin «jefe de centuria» izatera iritsi nintzen Falangen.

Xandro Arregik, *Erretratoa* saioan.

◆ Hamazortzi-hogei bat pareja gaude Arrasaten, ondarrutar eta mondragoetarrez osatuak.

Xandro Arregik, *Erretratoa* saioan.

◆ Santiago Bideak gelditu eta erreflexioa egiteko aukera eman zidan. Familiak askoz ere gehiago pentsatu nuen egun haietan, neure ezkonbitza guztian baino.

Xandro Arregik, *Erretratoa* saioan.



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Gurasook, baliteke seme-alabekin tirabiratxoren bat izatea, hauek alde batera laga dituzuen usteagatik buruhausteren bat emango dizuetelako. Baliteke ligeriketa txarrak izatea eta komenigarri izango zaizue jatordu arinagoak egitea.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Bidaiatzeko garai egokia, Leo. Ezinezkoa bazaizu ere irudimenez gainezka zaude eta berekin edonora abiatu ahal izateko gai izango zara tokitik mugitu barik. Hankei astindualdixoren bat ematea ere primerakoa izango litzateke.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Bero-bero ekingo diozu ekintza berriren bati eta leheritu beharrean egongo zara momenturen batean; orduan konturatuko zara astiro ibiltzeak zenbat mesede egiten duen. Suak zuzentzen zaitu eta baretzaile izaten ikastea komeniko litzazuke.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Harrizkoa bazina bezala ari zara jokatzeko, sentimentuak zeuretako gorde nahi horrekin, baina, lehentxeago edo geroxeago atera egingo zaizkizu. Ez zaitetz hain irudikorra izan eta bota itzazu pena horiek.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Goibel egoteko joera izango duzu datozen egunetan, ilargiaren egoerak inguruko gertaerarik txarrena ere antzeman eraziko dizulako. Lanean izango duzu egun osoan psike eta barne isiltasunetik aterako zaituen ekintzaren bat egin ezazu.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Baliteke pot eginda sentitzez aterata asmoz edanari eman izana. Berehalakoan aterako zara putzu horretatik. Merkurio eta Saturno zure esparruan egoteak, egoera horretatik ateratzeko kemena eta bidea eskainiko bait dizkizu.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Badoa, bai, azkenaldian bereganatuta zintuen gogortasun hori baretuz, Venus eta Jupiterrek oraindik zure esparruan dagoen Marteren gogorkeria ahulzea lor bait dezakete. Zeure aldetik barne ezaguketa egitea ere komenigarria litzateke.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon esaeraren esanahia azaldu beharko diozu lagunari, zure zuzendari den eta maizagari egiten zaituen Venus planetaren kontrako egoeran jarri bait zaizu.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Sekulako gaitasuna izango duzu sormenerako Acuario, bai zereginei bai eguneroko harremanei dagokienez. Begiko izango zaitu datozen egunetan hartuemanik izango duzun edonork; gustora sentituko zara bai, baina kontuz harrokeriarekin.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Detektibearena egiten ari zara Cancer, besteen bizimodua ezagutu nahian, jakinminak bereganatu zaitu eta ezin duzu inor baketan laga. Hobe izango zenuke zeure fraketan sartzea, bertan kabitzeke ere nahikoa arazo izango bait duzu.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Zeure barnea lantzen arituko zara orain arteko gizalegearen atal batzuk eraldatu asmoz. Aldaketok berehalakoak izan ez daitezzen ahalegi zaitetz, jendea ez bait da izaten derrepenteko aldaketak jasateko gai.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Laguna izan edo izateko asmotan zaudetenok ez duzue primerako harremana lortzeko aukerarik izango, ez bait duzue bestearen sentimenduekin bateratzeko gaitasunik izango. Denetik eramaten jakitea baino ez da, Piscis.

Pia eta Fabio Betaurrekoak: 2.550 pta. bakarrik

Modazko betaurreko berri, oso polit eta guztiz erakargarriak nahi badituzu, hona hemen Pia eta Fabio ereduak:

2550 pta. soilik.

MultiOpticas-ko betaurreko hauek J. Larrañaga Optika bakarrik aurkituko dituzu.

Beste inork ere ez ditu.


J. Larrañaga
OPTIKA

MULTIOPTICAS

San Pedro, 22 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enparantza - ORDIZIA

Guztiz erakargarriak

Apartamentuak
ikusteko
bisita-bidaia
antolatuko ditugu
asteburuetan



ETXEBIZITZA-MULTZOAK COSTA DORADAN (SALOU, CAMBRILS, MIAMI)

- Itsasotik ondo-ondoan
- Antena parabolikoa
- 1 eta 2 logelako apartamentuak
- Pizina eta kanpoko aparkalekua


Les Gavines

**HIPOTEKAZKO
MALEGUA**
10 URTEARA '13 '75 ean



INFORMAZIOA



Anboto

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK / INVERSIONES Y SERVICIOS
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK / ASESORES INMOBILIARIOS

C/ Iturriotz, nº 11 - Tfno. (943) 7920 48 - ARRASATE-MONDRAGON


Manuel Niñerola
Grup immobiliari, s.a.

Passeig de La Salle 9
C. Sant Jordi 17
E-43850 CAMBRILS
Tel. 34(9)77 361567
Fax. 34(9)77 360754

iKER



SUKALDE-ERAKUSKETA:

Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE